

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 376/2020 Erabakia, abuztuaren 4koa. Behin betiko onespena ematea Burgeluko udalerrirako egindako ondasun higiezin gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruen mugaketari

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 8ko 329/2020 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezin gaineko zergari lotutako Burgeluko udalerriko hiri lurzoruen mugaketari, udalerriko zenbait lurzatiren egoera zuzen jasotzeko xedeaz.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikuluko 4. apartatuan 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, baina epe hori igaro ondoren Burgeluko Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako ebazpenarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Onestea ondasun higiezin gaineko zergari lotutako hiri lurzoruen mugaketa, honekin batera doazen 1:1.000 eta 1:1.500 eskalako planoetan agertzen dena, zeina Burgeluko udalerriri baitagokio. Horren helburua da Burgeluko arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa jasotzea. Arau Subsidiario horiek urtarrilaren 20ko 26/2003 Foru Aginduak onetsi zituen.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezin gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Burgeluko udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, horrelaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duenak, bere 11. artikuluen 5. paragrafoan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA